

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2021 Foru Dekretua, apirilaren 20koa. Onespena ematea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez onespena ematen baitzaie nekazaritza, ingurumen eta klima laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarri arautzaileei eta haien 2021erako deialdiari

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zitzaien nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriari eta laguntza lerro horren 2016rako deialdiari. Laguntza horiek 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren barruan ematekoak dira, 1305/2013 zenbakiko erregelamenduak ezarritako mugen barruan, eta M10 "Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurriak" eta M11 "Nekazaritza ekologikoko neurriak" izenez identifikatzen dira.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 20/2017 Foru Dekretuaren bidez, laguntza hauen oinarri arauetako batzuk aldatu ziren, eta 2017rako haien deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 13ko 19/2018 Foru Dekretuaren bidez, berriz ere aldatu ziren laguntza horien oinarri arauak, eta laguntza lerro horren 2018rako deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 16/2019 Foru Dekretuaren bidez, oinarriak berriz ere aldatu ziren eta 2019rako deialdia onetsi zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 24ko 11/2020 Foru Dekretuaren bidez, aldaketa gehiago sartu ziren eta 2020rako deialdia onetsi zen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2220 (EB) Erregelamenduaren bidez, zenbait xedapen iragankor ezarri ziren LGENF-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtseko eta NBEF-Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtseko 2021eko eta 2022ko laguntzarako, eta NPBko laguntzak arautzen dituzten (EB) Erregelamenduak arautu ziren (besteak beste, 1305/2012 Erregelamendua). Hortaz, LGENFek 2015-2020 aldian finantzaturako programak 2022ko abenduaren 31ra arte luzatuko dira.

Beharrezkoa da oinarri arautzaileak aipatutako erregelamendura eta EAeko LGPren azken aldaketara moldatzea, era horretan ahalbideratuz konpromisoek iraupen laburragoa izatea aldi iragankorrean (2021ean eta 2020) hartzen diren konpromisoetarako gaur egun araudiaren 4. artikuluan jasotzen den 5 urteko aldia baino. Beste alde batetik, ikusi da beharrezkoa dela 12.4 artikuluan ezarritako zehapenak jartzeko era argitzea, konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopurua mantentzen ez den kasuetarako. Hortaz, aldatu behar da esandako artikulua.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 1. eta 2. apartatuak aldatzea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren 4. artikuluan, zeinean onuradunen baldintza eta konpromiso orokorrak ezartzen baitira. Aurrerantzean honela egongo dira idatzita:

4. artikulua. Baldintza eta konpromiso orokorrak

4.1 Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako eta nekazaritza ekologikoko konpromisoak bost urtez hartzen dituzten onuradunei laguntzak emango zaizkie. Horiek I. eranskinaren arabera azpineurrietako bakoitzean zehaztuta daude. 2021etik aurrera, hartutako konpromiso berrien iraupena 2 urte izango da, 2021ean hartutako konpromisoak izanez gero, eta urtebete, 2022an hartutako konpromisoak izanez gero.

M11.1 "Nekazaritza ekologikora bihurtzea" azpineurrian, konpromisorako epea bihurketak irauten duen denborara murriztuko da.

Lurzatiak, aprobeixamenduak eta animaliak erregistro ofizial egokietan inskribaturik egon behar dira.

4.2 Laguntzaren hasierako eskaeran, eskaera zein azpineurritarako eskatzen duen, hartarako behar diren konpromisoak sinatuko ditu eskatzaileak, aurreko apartatuan adierazi den aldirako, eta nekazaritza-ingurumeneko kontratatutako joko da ondorio guztietarako, betiere hasierako laguntza-eskaeraren aldeko ebazpena eman bada. Konpromisoen denboraldia amaitutakoan, eta araudi egokiak eta aurrekontuak ahalbidetzen baldin badute, laguntza urtebetez luzatzeko eskaera egin ahalko da.

Hartutako konpromisoek gainditzen badute programazio aldia, 2022ra arte luzatua (urte hori barne), onuradunak onartu edo atzera bota beharko du 2023an hasiko den programazio aldi berriaren esparru juridikorako moldaketa eta, moldaketa hori ez onartzekotan, konpromisoa amaitutzat emango da, inolako penalizaziorik gabe.

Bigarrena. 4. apartatua aldatzea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren 12. artikuluan, zeinean arautzen baitira onargarritasun baldintzak eta bestelako konpromiso edo eginbeharrak ez betetzearen ondoriozko murrizketa eta zehapenak, zehazkiago konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopurua mantendu ezean aplikagarri direnak. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

12.4 Konpromisoaren aldiaren konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopurua mantendu ezean, murrizketa hauek aplikatuko dira:

MURRIZKETA		
* MURRIZKETA EHUNEKOA, KONPROMETITUTAKO GEHIENKO AZALERATIK EDO AZLU KOPURUTIK	EZ-BETETZEAREN 1. URTEA	EZ-BETETZEAREN 2. URTETIK AURRERA
ehuneko 10 < murrizketa ≤ ehuneko 40	ehuneko 20	ehuneko 40
ehuneko 40 < murrizketa ≤ ehuneko 60	ehuneko 50	ehuneko 100
ehuneko 60 < murrizketa ≤ ehuneko 100	ehuneko 100	ehuneko 100

* Murrizketa ehunekoa = (hauen bien arteko aldea: konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopurua; eta onargarritasun baldintzak, oinarritzko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituen azalera edo AzLU kopurua), konprometitutako gehieneko azalera edo AzLU kopuruaz zatituta eta 100ekin biderkatuta.

Konprometitutako AzLUei dagokienez, ikusten bada gutxitzea ehuneko 10 baino txikiagoa dela, ehuneko 5eko murrizketa aplikatuko da ez-betetzearen lehenengo urtean, eta ehuneko 10ekoa ez-betetzearen 2. urtetik aurrera, urte hura barne.

Nolanahi ere, konprometitutako gehieneko azalera edo AzLUak mantentzea behin eta berriro ez betetzeak ez du ekarriko aurreko urteetan jasotako kopuruak itzultzea.

Konprometitutako azalera edo AzLU kopurua bat etorriko da konpromiso aldiaren ordaindutako gehieneko azalera edo AzLU kopuruarekin. Kontrolen ondorioz ikusten baldin bada onargarritasun baldintzak, oinarritzko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituen

azalera edo AzLU kopurua txikiagoa dela konprometitutako azalera edo AzLU kopurua baino, eta zehapena jartzen bada konprometitutako azalera edo AzLU kopurua mantendu ez izanagatik, konprometitutako azalera edo AzLU kopuru berri bat ezarriko da onargarritasun baldintzak, oinarritzko egoera eta konpromiso baztertzailak betetzen dituen azalera edo AzLU kopurua oinarri hartuz.

Hirugarrena. 3. eta 4. apartatuak aldatzea Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren 18. artikuluan, zeinean arautzen baitira espedienteen izapidetzea, zehazkiago lehentasun taldeak eta talde bakoitzerako aukeratze irizpideak. Aurrerantzean honela egongo da idatzita:

18.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira. Aurrekontu zuzkidura nahikoa ez badago laguntzak eskuratu ahal izateko betekizunak betetzen dituzten eskaera gutxiei erantzuteko, ondoko lehentasun taldeak ezartzen dira:

1. EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren babespean konpromisoak indarrean dauzkaten eskaerak, gehieneko zenbatekoa konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruaren berdina delarik. Konpromiso mailarik altuena hainbat urtetan ematen bada, kontuan edukiko da haietan hartutako zenbateko handiena.

2. EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren babespean indarrean diren konpromisoen luzapenak, gehieneko zenbatekoa konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruaren berdina delarik. Konpromiso mailarik altuena hainbat urtetan ematen bada, kontuan edukiko da haietan hartutako zenbateko handiena.

3. Faseka lehenengo aldiz instalatzeko prozesuan eta EAEko LGPeke 6.1 neurriaren babespean dauden nekazari gazteen eskaerak, konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruekin alderatuta zenbatekoek izan dituzten gehikuntzaz.

4. Delako deialdiaren urtean aurkeztutako eskaera berriak.

5. Konpromisoak indarrean dituzten gainerako eskaerak, konpromiso mailarik altuena duen urtean emandako kopuruekin alderatuta zenbatekoek izan dituzten gehikuntzaz.

18.4 Aurreko ataleko lehentasun irizpideak aplikatu ondoren kreditua ez bada nahikoa taldeetaren baten eskaerei erantzuteko, kreditua agortzen den taldearen barruan laguntzak emango dira, eskaerak puntuazio handienetik txikienera baloraturaz, irizpide hauen arabera:

1. Natura 2000 sarea: Natura 2000 zonen eragina duen udalerrri batean dauden ustiategiak: 15 puntu.

2. Zonakatzea: udalerrria oztopo naturalekin edo beste oztopo espezifiko batzuekin izendatuta egotearen arabera diskriminatuko da:

Mendi aldeak: 15 puntu.

Zona behartsua, mendi aldeaz bestelakoa: 10 puntu.

Beste zona batzuk: 5 puntu.

3. Labore bakardun udalerrriak: labore bakar bat (belardiaz bestekoa) ENAren ehuneko 80 baino gehiago izateraino nagusi duten udalerrriak diskriminatuko dira: 15 puntu.

Puntuetan berdinduta egonez gero, 2000 Naturan eskatutako proiektuek izango dute lehentasuna.

Laugarrena. Onestea, 2021. urterako, dirulaguntza horietarako deialdia, honako ezaugarri hauekin:

5.1 Dei egiten den neurriak:

– Nekazaritza-ingurumeneko eta klimako neurria (M10).

– Nekazaritza ekologikoko neurria (M11).

5.2 Dei egiten den neurrien berezitasunak:

Laguntza eskatu ahal izango da ondoren adierazten diren azpineurrietarako konpromiso berri bat hasteko, baldin eta 2016-2020 aldian ez bada izan konpromisorik azpineurri bererako:

- Bertako animalien arrazak kontserbatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.3 azpineurria).
- Erlezaintza biodibertsitatea hobetzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.4 azpineurria).
- Ekoizpen integratua (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.1 azpineurria).
- Mendiko larreak kudeatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.5 azpineurria).
- Nekazaritza ekologikora bihurtzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.1 azpineurria).
- Nekazaritza ekologikoa mantentzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.2 azpineurria).

2016-2020 alditik etorritako konpromisoak indarrean dituztenek, ez badute bukatu 5 urteko aldia, aurreko azpineurriak ordaintzeko eskaera ere aurkeztu ahal izango dute.

Halaber, 2016-2020 aldiko konpromisoa bukatuta, beren konpromisoak luzatu nahi dituztenek ordaintzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute. Luzapen hori urtebetekoa izango da.

– Epea eta lekua. Deialdi honetan xedaturiko laguntzak jasotzeko eskaerak arau hauetan xedaturiko "eskaera bakarrean" egongo dira: abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren II. tituluko II. kapituluan eta otsailaren 16ko 20/2016 Dekretuaren 34. artikuluan (dekretu hori Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzeko da: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak).

Nolanahi ere, aintzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira 2021eko otsailaren 1etik aurreko paragrafoan aipatutako eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskaerak.

Eskaera bakarra aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe denbora bererako luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak hemen aurkeztu beharko dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun Bulegoen Erregistroan.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroren batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, nahitaez elkargoko kide izan behar duen jarduera profesional bat egiten dutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkaten dutenak.

– Kreditu erreserba: 1.320.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021erako gastuen aurrekontuetako 40.1.01.42.01.479.00.03 "Nekazaritza eta Ingurumen neurriak" izeneko partidaren kontura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2021erako deialdi honetan 18.000,00 euro ezartzen dira gehienez nekazaritza ustiategi bakoitzeko, eskatutako neurriak gorabehera. M10.1.3 "Bertako arrazak kontserbatzea" azpineurrirako laguntzak arraza bat baino gehiagotarako eskatuz gero, gehieneko kopurua gehitu ahal izango da, honela:

- 2.000,00 euroraino, eskatzen den bigarren arrazako animalientzat.
- Aurrekoaz gainera, beste 1.000,00 euroraino, eskatzen den hirugarren arrazako animalientzat.

– Finantzaketa: deialdi honetako laguntzen ehuneko 75 finantzatu ahal izango du LGENFek. Hala ez bada, laguntza nazional gehigarritzat hartuko dira, bat etorritz 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programan araututakoarekin.

Azken xedapen bakarra

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE